

Itun politiko eta sozial handi baten alde hezkuntzan

Nafarroako Eskola Kontseilua (NEK) Foru Komunitatean kontsulta eta partaidetzarako goi-organoa da unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrak ukitutako gizarte-sektoreendako eta, horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzan parte hartzeko organorik gorena. Kontseilu horretako kide dira hezkuntzarekin lotura duten sektore guztiak: gizartea, administrazioa, lurraldea eta politika. Hori dela eta, esan daiteke kontseilu hori dela hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko handi bat bultzatzeko lekurik egokiena Nafarroan.

Hezkuntza funtsezko eskubide bat da. 1985ean onetsi zen Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa (LODE), zeinak hezkuntza 16 urtera arte unibertsalizatu baitzuen. Ordutik hona hezkuntza-sistema arautzeko zenbait lege onetsi dira: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE), Hezkuntza Kalitaterako Lege Organikoa (LOCE), Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (LOE), Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzko Lege Organikoa (LOMCE) eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoa (LOMLOE). Lege horiek guztiek aldaketak etengabe eragin dituzte irakasleengan, ikasleengan eta familiengan.

Gainera, 1998tik aurrera hezkuntza arloko transferentziak eman zitzaizkien ordura arte ez zituzten autonomia erkidegoei. Horrek guztiak berekin ekarri du, batetik, Estatuko oinarritzko legeria autonomia erkidegoko legeriarekin bateragarri egin beharra eta, bestetik, eskumenen bidezko garapenean berezkoak diren hezkuntza-ereduak ezartzea. Autonomia hau aitzindaria izan da herritarrarengandik hurbil dagoen hezkuntza politika egiten, autonomia erkidego bakoitzaren ezaugarri eta berezitasun sozialen, ekonomikoen eta lurraldekoekin bat etorritz.

Hala ere, hezkuntza funtsezko eskubidea izanik ere, gobernuek, Estatukoak zein autonomia-erkidegoetakoek, desberdin gauzatu dute eskubide hori eta, gauzak horrela, askotariko ikusmoldeak, lehentasunak eta berezitasunak dituzten hezkuntza-sistema eta -ereduak ditugu gaur egun, eta horrek guztiak ereduaren jarraipena hautsi du (alderdi desberdinek txandaka agindu dute Estatuko gobernuan). Hartara, beharrezkoa da akordioak eta adostasunak lortzea hezkuntza-sistemaren egonkortasun egokia bermatzeko, eskumen arloko lidergoari uko egin gabe.

Era berean, gaur egungo krisiak agerian utzi du hezkuntzarako eskubidearen hauskortasuna. Lehenago aurrekontuetako murrizketek arrakala soziala eta lurralde mailakoa ireki zuten eta ez itxitzat ematen genuena gutxienez hezkuntzan. Ildo horretatik, hezkuntzako inbertsioa murriztu zen Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetan. Eta horrek berekin ekarri zuen hezkuntzako azpiegituren gabezia, irakasleen lan baldintzak okerragotzea, enpleguen ezegonkortasuna, kohesio sozialeko neurrien desagerpena, landa eskolak babesik gabe gelditzea, parte-hartzearen ahulezia eta, azken batean,



nahiz eta beharrezkoa izan, ez egotea hezkuntza komunitate osoa integratuko zuen gidaritza politiko bat, kalitatezko, ekitatezko eta gizarte- eta lurralde-kohesioko hezkuntza eredu bat garatuko zela bermatzeko.

Espainian eta Nafarroan gero eta agerikoagoa da hezkuntzan itun politiko eta sozial handi bat lortzeko beharra, besteak beste, arazo hauek konpontzeko: eskola-porrota eta gazteek garaia baino lehen uztea eskola. Izan ere, gaiaren inguruko txosten guztiek ohartarazten dute arazo horiei buruz. Gainera, beharrezkoa da arau-egonkortasuna, kalitate-eredu erabakigarri baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duena uneko gobernu edozein delarik ere. Hezkuntza-estrategiak orain bi ezegonkortasun-iturri dituzte: ziklo politikoa eta ziklo ekonomikoa. Ziklo politikoari dagokionez, gobernuko agintariak aldatzen diren aldi oro erreforma eta kontraerreformak egiten dira legeetan; ziklo ekonomikoari dagokionez, berriz, ekonomiak zailtasunak dituen hezkuntzan eta zientzian inbertsioari galga jartzen zaio, baita herrialde aurreratuenera konbergentzian ere. Bi ezegonkortasun-iturri horiek saihesten ahalegindu behar dugu.

Hezkuntza malgu eta zeharkakoa erdietsi nahi da, zeinetan ikasle orok ez baititu gauza berak egiten. Izan ere, ekitatean eta kalitatean, ahaleginean eta merezimenduan oinarritutako hezkuntza behar dugu. Etapa guztietan, hezkuntzaren helburua da pertsonaren osoko prestakuntza erdiestea, eta herritartasun librerako eta lanbide-mundu zorrotz baterako prestakuntza ematea. Eta horretarako ez da aski irakaskuntzako erakundeen ahalegina. Izan ere, langintza horretan hartu behar dute parte eragileek, irakasleek, ikasleek, irakasle ez diren langileek eta familiako zein ingurune sozialeko kideek. Hori guztia hobetu behar dugu adierazle hobeak erdietsi nahi baditugu. Etengabeak behar dute izan herritar eta profesional onen belaunaldiak. Horretarako, ezinbestekoa da irakasleen rola eta, horrenbestez, maila guztietan aintzatetsi behar ditugu eta, orobat, haien lan arduratsua kalitatezkoa eta ilusioz egindakoa izatea bultzatu behar dugu. Ezinbestekoa da gizarteak eskura jartzea jakintzaren eta sormenaren komunikazioari egokitzen zaizkion baliabideak eta ingurukoak. Ezinbestekoa da irakasleen lanaren balioa aitortzea eta ahalegina lantzea. Ezinbestekoa da familiek balio horiek eta bizikidetzaren demokratikoa eta bizitzarako jakintza eskuratzeko balioak transmititzea. Eta, orobat, ezinbestekoa da ikasleek beren ikaskuntzarekin konpromisoarekin ilusioa izatea. Horretarako, aldeko giroa sortu behar dugu gizartearen; egiten ari garen horretan konfiantza izan behar dugu. Eta horrek hezkuntza-maila guztietan balio du, gainera. Hala, ez bairik gabe, adierazle hobeak erdietsiko ditugu hezkuntza hobe izanen baitugu.

Gizartea akordioa eskatzen ari da. Begien bistakoa da hezkuntzak gizarte-ereduari forma ematen diola, baina demokrazia bateko herritarren profila jada eratuta dago eta ezin dugu gehiago jasan "alde txikien nartzizismoak" berekin dakarren higadura. Nekatuta gaude hezkuntza-mezuen balioa handiagoa edo txikiagoa izatearekin, mezulariaren arabera. HEZKUNTZA ITUNA halaber beharrezkoa da, baina hasieran partida taula berri baten gainean jokatu behar da, hezkuntzan murgilduta dauden sektore guztien ordezkaritza duen batean, hots, Eskola Kontseiluan. Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial hau



Nafarroako Eskola Kontseiluak berez duen adostasunaren ahaleginaren emaitza izanen da, jomuga hori lortzeko toki atsegin eta beharrezkoa baita kontseilua. Etorkizuneko ikuspegia eta erantzukizuna behar ditugu, gogoan oinarritutako espiritua, esku artean duguna aurrera ateratzeko nahia, eta konfiantza. Besteak dioena entzuten ikastea. Elkartzen gaituen hori aurkitzea. Pentsamendu positibo hori izanez gero aurrera egingen dugu.

Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial hori denon arteko lana da eta ez bereziki inoren meritua. Hortxe dugu arrakasta. Eta pedagogia hori gero Parlamentura bidali behar dugu. Ez da gobernu zehatz baten ituna. Etorkizuneko belaunaldietarako ituna da. Gizartea horixe ari da eskatzen eta alderdi politikoek ez lukete hutsik egin behar. Hauxe da unea. Hezkuntza komunitateak badu hitzordu bat du datorren astelehenean, urtarrilak 10, eta hobe du hutsik ez egitea Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako jardunaldia, aipatutako helburu horiek erdiesteko prozesuaren abiapuntu izanen dena. Elkartzen gaituena jarri behar dugu mahai gainean, bereizten gaituena baino gehiago baita elkartzen gaituena.

Manuel Martín Iglesias

Lehendakaria